

Ordizian, **2016ko uztailaren 21ean**, Udaletxe honetako batzar aretoan bildu zen UDALEKO OSOKO BILKURA, OHIKO DEIALDIAN, honakoak bertaratu zirelarik:

BERTARATUAK:

BATZORDEBURUA:

José Miguel Santamaría Ezeiza

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras	EAJ/PNV
Bittor Bolinaga Alzelai	EAJ/PNV
Jose Ignacio Iturrioz Gotor	EAJ/PNV
Arantxa Fernandez Alvaredo	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre	Ordiziako EHBildu
Belen Maiza Urrestarazu	Ordiziako EHBildu
Jon Ander Caballero Zubelzu	Ordiziako EHBildu
Miren Alazne Sukia Galparsoro	Ordizia Orain
M ^a .Jesus Soto De Los Santos	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak.

BERTARATU EZ DIREN ZINEGOTZIAK:

Adur Ezenarro Agirre	Ordiziako EHBildu
Izaro Intsausti Zinkunegi	Ordiziako EHBildu

IDAZKARIA:

Ana Urkizu Kerejeta

KONTUHARTZAILEA:

José Luís Aranburu Otegi

EGUNEKO GAIEN ZERREDA:

- 1.-2016ko ekainaren 30ean egindako osoko bilkurako akta onartzea.
- 2.- LAB sindikatuak aurkeztutako mozioa Udalak, bere erakunde autonomoek eta menpe dauden erakundeek azpikontratetan izan behar dituzten lan baldintzen defentsan.
- 3.- 2016ko bigarren hiruhilekoan kontu-hartzaileak egindako ingeren berri ematea.
- 4.- Kreditu Gehigarrien 657 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren berri ematea.
- 5.- Kreditu transferentzien 2. zenbakidun espedientea.

6.- Gazte kooperanteei diru-laguntzak ematea.

7.- Galde-eskeak.

GALDE-ESKAERETAN SARTUTAKO GAIAK:

ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 19:00

AMAIERA ORDUA: 20,10



Lehendakari jaunak hasiera eman dio bilerari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.-2016ko ekainaren 30eko ohiko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2016ko ekainaren 30ean ohiko deialdian egindako bilkuraren aktaren zirriborroa onartzea.

Eztabaida:

Sukia and.

Adierazi du aktan jasotzen dela osoko bilkura hasi aurretik Istanbulgo atentatuagatik minutu bateko isilunea egin zela.

Akta zuzentzeko eskaera egin du Istanbulgo atentatuaz gain duela gutxi izandako beste atentatu batzuk ere izan zirelako gogoan, besteak beste, Orlandokoa.

Zuzenketa egin da.

Bozketa

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 3, Ordizia Orain 2, PSE-EE(PSOE) 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak akta onartutzat eman du.



2.- LAB sindikatuak aurkeztutako mozioa Udalak, bere erakunde autonomoek eta menpe dauden erakundeek azpikontratetan izan behar dituzten lan baldintzen defentsan.

Proposamena

Eskulanen edo zerbitzuaren azpikontratazioa Euskal Herriko erakundeetan gobernatzen duten alderdi politikoen erabakiz, batik bat EAJ-ren, UPN-ren, PSN-n eta PSE-ren erabakiz, gauzatu zen eta gauzatzen ari da. Erabaki politiko horrek ondorio larriak dakartzalarik.

Azpikontratetan diharduten langileek, besteak beste, hiru ondorio larri jasaten dituzte:

- Erakundeak ahaztu dira langile hauetaz, jadanik ez direlako EUREN langileak. Arazoak sortzen direnean, eskuak garbitzen dituzte, eta behin eta berriz, haien arazoak azpikontratara desbideratzen dituzte
- Azpikontratazioak lan baldintzak kaskartzea ekarri du eta prekarietatea larriagotu da lan erreformarekin
- Krisiak eraginda, erakundeetan ematen ari diren murrizketak direla-eta azpikontratetako lanpostuak suntsitu eta murriztu dira.

LABek argi dauka zerbitzu publikoko lanak langile publikoek bete behar dituztela, eta halaxe defendatuko dugu, lanpostu horiek, berez, baldintza hobetoak dituztelako eta egun esku pribatuetan dagoen diru publikoaren kontrola handiagoa delako. Hura gure helburua izanik, berez, lan horietako asko azpikontraten bidez egiten dira, eta hortaz, hauetan jasan ohi den egoera arinduko luketen ekimenei ekin beharko litzateke. Erakundeek badute ardura azpikontratetako langileekin eta ezin dute ezikusiarena egin jasaten ari diren lan egoera honen aurrean.

Erakundeek gaitasuna dute, azpikontrata batek obra edo zerbitzuren bat kontratatzen duenean langileen baldintzak bermatuko dituzten nahitaez bete beharreko klausulak sartzeko.

Hortaz, egun erakundeak gobernatzen dituzten alderdi politikoek ez badute urratsik egiten azpikontratetako lan baldintzak eta lanpostuak babesteko, langileek jasan ohi duten egoeraren arduradun eta konplizeak izango dira.

LABek, azpikontratetako langileen baldintzak hobetzeko asmoz, ekimen berri bati ekin dio, eta Euskal Herriko erakunde guztietan eskatu du lan edo zerbitzuak azpikontratatzeko pleguetan neurri jakin batzuk derrigorrez har daitezen.

Horregatik, Ordiziako Udalari eta bere menpeko erakundeei, edozein izaera juridiko daukatelarik, zerbitzuak edo/eta lanak azpikontraten bidez bideratzen dituztenean, kontratazio-plegu guztietan ondoren adierazten diren neurriak bermatuko dituzten **klausulak** sar ditzan eskatzen diogu:

1. Gutxienez, herrialdeko hitzarmen sektoriala ezarriko da. Hauetako hitzarmenen bat indarrean ez balego, berritu artean, langileei ezartzen zaizkien lan baldintza guztiei eutsiko zaie. Era berean, langileei ezartzen zitzaizkien eta ezarriko zaizkien lan baldintzak kontratazio berrietan ezarriko dira. Lan zentroko edota zerbitzuko hitzarmenik edo itunik balego, bertan jasotakoa langileei ezarri beharreko gutxieneko baldintzatzat joko da, bai indarrean dauden bitartean, baita berritu arte ere, beti ere herrialdeko hitzarmen sektoriala sorospidez ezarriko litzatekeelarik.

2. Ez da inoiz estatu mailako enpresa hitzarmenik ezarriko, ez eta estatu mailako hitzarmenik ere, azken adibide honen harira, probintzia mailan, sektoreko negoziatorik inoiz izan ez den kasuetan.

3. Ezin izango zaizkie, ezarri beharreko hitzarmenean edota itunean jasotako baldintzetan, hitzarmenari ez lotzeko prozedurei ekin.

4. Zerbitzua eskaintzen duen enpresa aldatuko balitz, langile guztiak subrogatuko dira.

5. Pleguan jasoko litzatekeen zerbitzua burutzeko behar den langile kopuruari eutsiko zaio edonoiz. Ezin izango da kaleratze kolektibo edo indibidualik egin zio objektiboengatik.

Bajak, erretiroak, oporrak, eszedentziak, baimenak,... ematen direnean, langileak ordezkatu beharko dira.

6. Genero berdintasuna, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak ezabatzeko helburuarekin.

7. Lan Osasun arloan ezar daitekeen araudi oro beteko da; neurri berriak sartuko dira ere, lanpostu jakin batzuek izan litzaketen ezaugarri jakin batzuen baitan.

8. Hizkuntz-eskubideak zerbitzua eta lanpostuak euskalduntzen direla berma dadin. Horretarako epeak eta laguntza neurriak ezarriko dira.

9. Lana edo zerbitzuaren esleipena jaso duen enpresak, hura guztiz edo partzialki azpikontratatu balu, hark bermatu beharko du ere, azpikontratazioaren kate osoan, pleguan jasotako klausula guztiak betetzen direla.

10. Baldintza horiek beteko ez balira, zerbitzua eman zaion enpresa zigortuko da.

11. Behar besteko neurriak artikulatuko dira udaleko langabezien ehuneko bat lan edo zerbitzu hauek betetzera kontrata daitezzen.

Goian aipatutako neurri hauek ezinbestekoak dira. Bestela, azpikontratatu diren langileak baztertu eta babesik gabe geratuko direlako, eta dagokion erakundeak ardura handia izango duelako horretan.

Gogorik balego, eta beti ere, langileei dagozkien eskubideak babestu aldera, LAB gertu legoke bidea egiteko, lege-mugez gain. Horregatik, adierazi nahi dugu erakunde horrekin edota bertan ordezkatura dauden edozein alderdi politikorekin lan bilerak egiteko prest gaudela, arazo honetaz mintzatzeko eta konponbideak bilatzeko.

Eztabaida:

LABen Ordezkaria

Jandartetik labur azaldu du mozioa aurkeztu izanaren arrazoa. Askotan eskatu dutela azaldu du.

Alkate jn.

Adierazi du puntuz puntu aztertu dela aurkeztutako proposamena eta berak ere bat egiten duela azpikontratatu langileen lan-baldintzek duinak izan behar duten oinarriarekin, baina zerbitzu juridikoen ustez, klausula sozial batzuk ezin dira ezarri.

Mozioari "asmo-deklarazio" forma ematea proposatzen du eta proposatutako neurri edo klausulak egin daitezkeen neurrian aplikatzea, baina beharrezkoa iruditzen zaio alde aurretik txosten juridiko bat egitea.

LABen Ordezkaria

LABen beste ordezkari batek jandartetik esan du mozioaren bidez lan baldintzak duin bihurtu nahi direla soilik eta ez dela lehenengo aldia osoko bilkuran onartzeko aurkeztu dutena.

Alkate jn.

LABen ordezkari mozioa zein Udaletan aurkeztu duten galdetu die eta zein Udalek onartu duten eta aplikatzen duten kontratazioan.

Sukia and.

Ez du ikusten legearen aurkakoak direnik proposatzen diren klausulak eta borondate kontua dela uste du.

Eguren jn.

Mozioa duela 14 hilabete aurkeztu zutela esan du eta aztertzeke denbora nahikoa izan dutela.

Azaldu du 2015 urtean zenbait mugimendu izan zirela eta ondorioz EULEN bezalako enpresek probintzietako sektore hitzarmenak aplikatzea erabaki zuten.

Bere ustez mozioa "asmo-deklarazio" hutsean uztea gaia arintzea da eta ezer ez esatea.

Sukia and.

Esan du langileen eta enpresen arteko ituna existitzen dela.

Soto and.

Esan du, gaur bertan, Eusko Jaurlaritzak, gaiarekin lotutako adierazpen batean adierazi duela probintzia hitzarmena aplikatu behar dela lehentasunez.

Dubreuil jn.

2007-2011 legealdian Talde Sozialistak klausula sozialak sartzea proposatu zuela adierazi du eta udaletxean aurkezpen bat egin zuela gaian aditua den teknikari batekin. Orduan klausula sozial batzuk onartu ziren eta komenigarria iruditzen zaio epe bat zehaztea, adibidez 3 hilabete, gaia ixten joateko.

Eguren jn.

Esan du beraiek ez dutela moziorik aurkeztu nahiz eta osotasunean bat egin mozioarekin, hori dela eta, aurkeztu dutenei mantentzeko eskaera egiten die. Bere ustez atzeratzea ez da egokia.

Dubreuil jn.

Mozioaren azkeneko atala aipatuz esan du normala iruditzen zaiola EH-BILDUK legeak ez errespetatzea baina berak errespetatu egin behar direla uste du.

Mozioaren Hitzaurrean PNV, UPN, PSE eta PSN bezalako alderdiak aipatzen dira azpikontratazioaren erantzule gisa baina EH-BILDUK ere azpikontratatu duela gogorarazi du.

Proposatzen diren klausulen legezkotasuna aztertu behar litzatekeela azpimarratu du eta 3 hilabeteko epea ezarri horietako zenbat edo hala badagokio denak onartzen diren zehazteko.

Horrez gain, proposatutako klausula batzuk dagoeneko Ordiziahitzen jasotzen dira.

Eguren in.

Erantzun dio esanez arrazoa duela EH-BILDUK ere azpikontratatu egin duela esaten duenean, baina baldintzak bestelakoak izan direla uste du.

Sukia and.

Onartzeko zein arazo dagoen galdetu dio Dubreuil jaunari, esaten duen moduan Ordiziahitzen jasota badaude.

Dubreuil in.

Adierazi du mozioaren Hitzaurrea edo lehenengo paragrafoa, 11. puntua eta azkeneko paragrafoa kentzen badira proposamenaren alde bozkatzeko prest egongo litzatekeela.

Eguren in.

Adierazi du zehazki mozioaren 11 zenbakidun puntua iruditzen zaiola garrantzia handieneko klausuletako bat.

Idazkari andreak

Onartu nahi diren puntu edo klausulekin lotuta txosten juridiko bat egitea komeni dela azaldu du. Puntu horietako batzuen inguruko zalantzak azaldu ditu. Ez du argi ikusten kontratazio pleguetan kontratistei eska diezaiekegunik zenbait betekizun betetzea.

Eguren in.

Behin baino gehiagotan enplegatu publikoen lan baldintzekin lotuta legezkoak ez diren neurriak onartu direla esan du eta hala ere borondate politikoa izanik aurrera atera dira. Eta adibide moduan aipatu ditu lanpostuen balorazioa, soldata igoerak... eta abar.

Idazkari andreak

Erantzun dio esanez borondate politikoarekin lotuta dagoen gaia dela argi badago eta proposamenaren legezkotasuna alde batera uzten bada, berak ez duela ezer esatekorik, eta jaso besterik ez duela egingo.

Sukia and.

Nolanahi ere bere taldeak mozioaren alde bozkatuko duela esan du.

Eguren in

11 zenbakidun puntua kentzea atzera egitea dela nabarmendu du puntu garrantzitsuenetako bat dela uste duelako.

Soto and.

Bat egiten du mozioaren funtsarekin baina ez da legezkotasuna gainditu dezaketen klausulak onartzearen aldekoa.

Mozioa onartzea proposatzen da, ondorengo ezabatuz:

.- Lehenengo paragrafoa "Eskulanen edo zerbitzuaren azpikontratazioa Euskal Herriko erakundeetan gobernatzen duten alderdi politikoen erabakiz, batik bat EAJ-ren, UPN-ren, PSN-n eta PSE-ren erabakiz, gauzatu zen eta gauzatzen ari da. Erabaki politiko horrek ondorio larriak dakartzalarik.

.- 11 zenbakin paragrafoa: "Behar besteko neurriak artikulatuko dira udaleko langabezien ehuneko bat lan edo zerbitzu hauek betetzera kontrata daitezzen".

.- Azkeneko paragrafoa: "Gogorik balego, eta beti ere, langileei dagozkien eskubideak babestu aldera, LAB gertu legoke bidea egiteko, lege-mugez gain. Horregatik, adierazi nahi dugu erakunde horrekin edota bertan ordezkaturik dauden edozein alderdi politikorekin lan bilerak egiteko prest gaudela, arazo honetaz mintzatzeko eta konponbideak bilatzeko".

Osoko bilkuran bozkatuko den proposamena beraz honela idatzita geratuko da:

Proposamena

Azpikontretan diharduten langileek, besteak beste, hiru ondorio larri jasaten dituzte:

- Erakundeak ahaztu dira langile hauetaz, jadanik ez direlako EUREN langileak. Arazoak sortzen direnean, eskuak garbitzen dituzte, eta behin eta berriz, haien arazoak azpikontratara desbideratzen dituzte
- Azpikontratazioak lan baldintzak kaskartzea ekarri du eta prekarietatea larriagotu da lan erreformarekin
- Krisiak eraginda, erakundeetan ematen ari diren murrizketak direla-eta azpikontratetako lanpostuak suntsitu eta murriztu dira.

LABek argi dauka zerbitzu publikoko lanak langile publikoek bete behar dituztela, eta halaxe defendatuko dugu, lanpostu horiek, berez, baldintza hobetoak dituztelako eta egun esku pribatuetan dagoen diru publikoaren kontrola handiagoa delako. Hura gure helburua izanik, berez, lan horietako asko azpikontraten bidez egiten dira, eta hortaz, hauetan jasan ohi den egoera arinduko luketen ekimenei ekin beharko litzaieke. Erakundeek badute ardura azpikontratetako langileekin eta ezin dute ezikusiarena egin jasaten ari diren lan egoera honen aurrean.

Erakundeek gaitasuna dute, azpikontrata batek obra edo zerbitzuren bat kontratatzen duenean langileen baldintzak bermatuko dituzten nahitaez bete beharreko klausulak sartzeko.

Hortaz, egun erakundeak gobernatzen dituzten alderdi politikoek ez badute urratsik egiten azpikontratetako lan baldintzak eta lanpostuak babesteko, langileek jasan ohi duten egoeraren arduradun eta konplizeak izango dira.

LABek, azpikontratetako langileen baldintzak hobetzeko asmoz, ekimen berri bati ekin dio, eta Euskal Herriko erakunde guztietan eskatu du lan edo zerbitzuak azpikontratatzeko pleguetan neurri jakin batzuk derrigorrez har daitezen.

Horregatik, Ordiziako Udalari eta bere menpeko erakundeei, edozein izaera juridiko daukatelarik, zerbitzuak edo/eta lanak azpikontraten bidez bideratzen dituztenean, kontratazio-plegu guztietan ondoren adierazten diren neurriak bermatuko dituzten klausulak sar ditzan eskatzen diogu:

1. Gutxienez, herrialdeko hitzarmen sektoriala ezarriko da. Hauetako hitzarmenen bat indarrean ez balego, berriro artean, langileei ezartzen zaizkien lan baldintza guztiei eutsiko zaie. Era berean, langileei ezartzen zitzaizkien eta ezarriko zaizkien lan baldintzak kontratazio berrietan ezarriko dira.
Lan zentroko edota zerbitzuko hitzarmenik edo itunik balego, bertan jasotakoa langileei ezarri beharreko gutxieneko baldintzat joko da, bai indarrean dauden bitartean, baita berriro ere, beti ere herrialdeko hitzarmen sektoriala sorospidez ezarriko litzatekeelarik.
2. Ez da inoiz estatu mailako enpresa hitzarmenik ezarriko, ez eta estatu mailako hitzarmenik ere, azken adibide honen harira, probintzia mailan, sektoreko negoziatorik inoiz izan ez den kasuetan.
3. Ezin izango zaizkie, ezarri beharreko hitzarmenean edota itunean jasotako baldintzetan, hitzarmenari ez lotzeko prozedurei ekin.
4. Zerbitzua eskaintzen duen enpresa aldatuko balitz, langile guztiak subrogatuko dira.
5. Pleguan jasoko litzatekeen zerbitzua burutzeko behar den langile kopuruari eutsiko zaio edonoiz. Ezin izango da kaleratze kolektibo edo indibidualik egin zio objektiboengatik.
Bajak, erretiroak, oporrak, eszedentziak, baimenak,... ematen direnean, langileak ordezkatu beharko dira.
6. Genero berdintasuna, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak ezabatzeko helburuarekin.
7. Lan Osasun arloan ezar daitekeen araudi oro beteko da; neurri berriak sartuko dira ere, lanpostu jakin batzuek izan litzaketan ezaugarri jakin batzuen baitan.

8. Hizkuntz-eskubideak zerbitzua eta lanpostuak euskalduntzen direla berma dadin. Horretarako epeak eta laguntza neurriak ezarriko dira.
9. Lana edo zerbitzuaren esleipena jaso duen enpresak, hura guztiz edo partzialki azpikontratatu balu, hark bermatu beharko du ere, azpikontratazioaren kate osoan, pleguan jasotako klausula guztiak betetzen direla.
10. Baldintza horiek beteko ez balira, zerbitzua eman zaion enpresa zigortuko da.

Goian aipatutako neurri hauek ezinbestekoak dira. Bestela, azpikontratatu diren langileak baztertu eta babesik gabe geratuko direlako, eta dagokion erakundeak ardura handia izango duelako horretan.

Bozketa

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 3, Ordizia Orain 2, PSE-EE(PSOE) 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.

Hala ere, zehaztutako aldaketekin proposamena onartuta geratzen bada ere, txosten juridiko bat egingo da eta Lan-Mahai bat eratuko da.



3.- 2016ko bigarren sei hilekoan kontu-hartzaileak egindako ingeren berri ematea.

Osoko bilkuran honen berri eman da.



4.- Kreditu Gehigarrien 657 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren berri ematea.

DECRETO 675

HONAKO HAU IKUSITA

Ordizia Lantzen, S.A. datorren uztailaren 8an Lankide Kutzarekin daukan mailegu baten amortizazioa (150.000.-e) ordaindu beharko duela, eta ez daukala nahiko dirurik.

Herriko plazak itokinak daudela eta orain dela garaia konpontzeko, Aurrekontuan kreditua ez dagoelarik.

Argindarra zerbitzuko autoa hondatuta dagoela eta oso premiazkoa dela konpontzea, Aurrekontuan nahiko kreditua ez dagoelarik.

Alkatearen ahalmena, Aurrekontuko 5.arauan ezarritakoa bera, kreditu gehigarriak onartzeko Aurrekontuaren baliabide arrunten %5eko mugarekin.

Hainbat dirusarrera izan direla Aurrekontuan aurreikusita ez zeudenak eta beste sarrera guztiak normaltasunez ari direla egiten.

HONAKO HAU ERABAKI DUT:

Kreditu gehigarrien 6.espedientea onartzea, 79.000.-€ suposatzen duelarik.

Udalbatzari kontu eman hurrengo Batzarran.

Jose Miguel Santamaria Ezeizak Alkateak agindu eta izenpetu du Ordizian, 2016ko ekainaren 21a, eta neuk Behin Behineko Idazkariak ziurtatu egin dut.

Osoko bilkuran honen berri eman da.



5.- Kreditu transferentzien 2. zenbakidun espedientea.

Proposamena

2016ko Aurrekontuan bi partida daude zerbitzu guztien gastuari aurre egiteko kredituarekin.

Bat, 626.01.920.00 partida da, tresneri informatikoa erosteko, eta bestea 623.04.163.00 partida da, beste tresneri mota batzuk erosteko.

Dagoeneko hainbat zerbitzuetan gastuak egin dira eta komeni da partida bakoitzari bere kreditua ematea.

Bestalde, Windows 10 ezartzen ari den heinean Microsoft Office-ko lizentziak erosi egin behar dira, eta hortarako aurrekontu bat prestatu da.

Prestatutako proposamena, 2016-7-13an bildutako Plenoko Gaien Batzordean aztertu da eta oneritzia eman zaio.

AKORDIO PROPOSAMENA

11.444,65 euro suposatzen duen kreditu transferentzien 2. espedientea onartzea, segidan azaltzen den zehaztasunarekin.

2016ko AURREKONTUA KREDITU-TRANSFERENTZIEN 2. ESPEDIENTEA

KREDITU IGOERA		
PARTIDA	IZENA	KOPURUA
623.04.153.40	Tresneria. Obrak	152,46
623.04.165.00	Tresneria. Argiteria	84,76
626.01.332.10	Tresneri informatikoa. Kultura	988,57
626.01.432.00	Tresneri informatikoa. D'elikatuz	1.121,67
626.01.912.00	Tresneri informatikoa. Gobernu Organoak	175,45
644.01.920.00	Microsoft Office ren lizentzien erosketa	8.802,75
623.04.931.00	Kalkulagailu bat	118,99
		11.444,65

FINANTZIAZIOA KREDITU MURRIZKETA		
PARTIDA	IZENA	KOPURUA
623.04.163.00	Tresneria. Kale garbiketa	6.444,65
626.01.920.00	Tresneri informatikoa. Administrazio Orokorra	5.000,00
		11.444,65

Bozketa

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 3, Ordizia Orain 2, Socialistas Vasco-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



6.- Gazte kooperantei dirulaguntzak ematea.

Proposamena

Ordiziako Udaleko garapenerako lankidetzeta-programa arautzen duen araudia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2012ko abuztuaren 21ean argitaratua, eta araudiko hirugarren kapituluaren arautzen den KOOPERANTE GAZTEEI EMANDAKO DIRU-LAGUNTZA PROGRAMA ikusita.

Honako hau proposatzen da:

AKORDIO PROIEKTUA

Jarraian aipatzen diren diru-laguntzak **ematea**:

- 1.- CRISTINA RODRIGUEZ DIEZ, ordiziar gazteari 352,74 euroko diru-laguntza ematea GREZIAra kooperante gisa joateko bidai gastuak ordaintzeko.
- 2.- BEÑAT GARATE MEDIAVILLA, ordiziar gazteari 352,74 euroko diru-laguntza ematea GREZIAra kooperante gisa joateko bidai gastuak ordaintzeko.
- 3.- IDOIA CABALLERO ARIAS, ordiziar gazteari 270,63 euroko diru-laguntza ematea GREZIAra kooperante gisa joateko bidai gastuak ordaintzeko.
- 4.- ROSA AGUNDEZ DEL CASTILLO, ordiziar gazteari 270,63 euroko diru-laguntza ematea GREZIAra kooperante gisa joateko bidai gastuak ordaintzeko.
- 5.- PABLO ZABALA PELAEZ, ordiziar gazteari 1.218,32 euroko diru-laguntza ematea TANZANIAra kooperante gisa joateko bidai gastuak ordaintzeko.

Jarraian aipatzen den diru-laguntza **ukatzea**:

- 1.- IDOIA CABALLERO ARIAS, ordiziar gazteari GREZIAN izango dituen ostatu gastuetarako diru-laguntza ukatzea.

Eztabaida:

Alkate jn.

Azaldu du diru-laguntzen atal zehatz honen xedea udalerriko gazte kooperatzaileei orokorrean bidaia-gastuak finantzatzea dela.

Sei eskaera aurkeztu dituzte, eta horietako bat ez da onartu.

Bozketa

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV 5, EH Bildu Ordizia 3, Ordizia Orain 2, Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak 1).

Kontrako botoak: 0

Abstentzioa: 0

Ondorioz Alkate jaunak proposamena onartutzat eman du.



7.- Galde-eskeak.

Alkate jaunak adierazi du agian gaurkoa Kontu-hartzailearen azkeneko osoko bilkura izango dela, izan ere, irailaren 22an erretiroa hartzen du eta bere bizitzako garai berrirako onena opa dio.

Horrekin batera, asteburu honetan hastekoak diren jaietan izango diren guztiei bakean eta harmonian jaietz gozatzea opa die.

Eguren jaunak Kontu-hartzaileari esan dio batzuetan une onak eta beste batzuetan okerragoak igaro dituztela baina berarengandik asko ikasi duela eta esperientzia ona izan dela.

Kontu-hartzaile jaunak guztiei esan die pozik doala burututako lanarekin, gogoz eta motibatuta lan egin duela bai urte batzuk igaro zituen Hernaniko Udalean bai bere bizitza profesionalaren zati handiena pasa duen Ordiziako Udalean.

Egia da une onak eta une ez hain onak egon direla, baina berak ere lankide guztiengandik ikasi du eta esperientzia ona izan da.



Gai gehiago ez dagoenez, Alkateak Osoko Bilkura amaitutzat eman du, eta batzordearen akta idatzi da, eta nik, behin-behineko idazkariak hori egiaztatzen dut.